

## Areatza Musik and Beer maiatzaren 27 eta 28an izango da

16. orrialdea

## Gozategik kontzertua emongo dau Areatzako komentuan

Martiaren 5ean, 19:30ean, Gozategi taldeak kontzertua eskainiko dau Areatzako komentuan. Taldeak 30 urte beteko ditu aurten trikitixa eta pop musika buztartzen eta Areatzan joko ditu bere kanturik ezagunenak. **17. orrialdea**



## Onditz Iturbe lasterkariak Apuko mendi lasterketea irabazi eban

15. orrialdea

## Zaintza publiko feminista alkarrikatuko dau Arratiak

Jarduera ugari antolatu dira Martiaren 8aren inguruan.

**A**rratiako mobimentu feministek eta erakundeek hile osoa hartzean dauan egitaraua prestatu dabe M8ko aldarrikapenak egin eta gizarte feministago eta justuagoa irudikatzeke kultura eta umorearen bidez. Horretarako, tailerrak eta berbal-diak, zinea, kontzertuak, eta bertsoak egongo dira. Virginia Imaz pailazoaren emonaldia, Irantzu Varelaren bakarrizketea eta Teresa Maldonadoren berbaldia dira programauta dagozan ekitaldietako batzuk. Martiaren 8ko manifestazioa, 19:00etan abiatuko da Igorreko Kultur Etxetik. **5. orrialdea**



## Gaztetxea defendiduten



Apirilaren 27an izango da epaiketea. Sabadell banketxeak Kiñu Gaztetxearen eraikinaren jaubeak, eraikina hustutzea eskatzen dau. Zezeilaren 19ko manifestazioan ehunka lagunek, "Kiñu Gaztetxea defendatu" lemapean batuta, asanbladakideei babes adierazo eutseen. **6. orrialdea**

### IGORRE

## Ia bost miloi euroko aurrekontuak onartu ditu Igorrek

Diru partidarik garrantzitsuenetakoak Gezalako oinezbiderako eta auzoetara doazen bideak konponduteko dira. Gazteguneko proiektuko erredakzioari be ekingo deusie aurten. Aurrekontuan isladatzen ez diran lanak be egingo ditue gordetako diruagaz. **5. orrialdea**

### ARRATIA, UBIDE

## Hondakin bilketarako diru gehiago izango dau aurten AUMk

Aurten, Arratiako Udalen Mankomunitateak 6.356.668,10 euro kudeatuko ditu, igaz baino %18,57 gehiago. 2022ko aurrekontuetako diru partidarik handiena etxeko hondakinak jaso eta tratetako da, gaikako bilketan inbersinoak egin eta sistema hobetu behar dalako. **7. orrialdea**

### ZEANURI

## Kofradiak eta gizarte premodernoko erakundeak

Krisia krisiaren gainean, oingo gizarte globalizau postmodernoe-tan bizitza ezinezko bihurtu dala eta premodernoetara begira jarri dira batzuk eta gizarte premodernoetako asistentzia sistemeagaz, eta oindino desagertu ez diran kofradiak egin dabe topo.

Zeanurin, San Migel ermitearen etorkizunagaz kezkatuta, herritar batzuek hiru aditu batu ebezan igaz. Ermitearen inguruan ezer ez eregitea, kofradiak soziedade zibil bihurtutea eta gizarte premodernoen erakundeak alternatiba moduan aldarrikatu ebezan hizlariek. Saio hareetan esandakoak berreskuratu dau BEGITUK. **10., 11. eta 12. orrialdeak**

**GARENA**  
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • [garena@garena.restaurant](mailto:garena@garena.restaurant)

[f](https://www.facebook.com/garena.restaurant) [i](https://www.instagram.com/garena.restaurant) [garena.restaurant](https://www.garena.restaurant)

**EKIN**  
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
[eraiketak@construccioneseekin.com](mailto:eraiketak@construccioneseekin.com)

# Literatura txokoa

## MIMOUN

Klasiko bat gomendatzen nator oingoan. Klasikoek beti segiduten dabe bizirik eta. Bai, Balzac, Flaubert, Tolstoi, Austen, Colette eta beste hainbeste bizirik dagoz oindino, euren literatureak ez daukalako kaduzidade datarik, izan be gaur egungo gizartea erreplejetako balio dabe oin dala 200 zein 90 urte idatzitako liburu askok.

Rafael Chirbes hurrekoagoa daukagu. Gure garaikidea izan da. Orduan... zergatik dinot ba klasiko batez natorrela? Ba uste dodalako Chirbesen literatureak urte askoan jarraituko dauala gaur egungoa izaten.

1988an idatzi eban bere lehenengo eleberria izango zan *Mimoun* liburua, eta gaur egun

be erraz topau leiteke liburua dendetan. Atzo idatzitako liburu askoren freskotasan berberagaz orri artean.

Baina noan harira...

Liburu honetako protagonista, Manuel, gaztelaniako irakaslea da Madril eta dana bertan behera itxi eta Marokora joango da han behar bat topetako asmotan eta bide batez hasita daukan eleberria amaituteko gogoz. Fes urian geratuko da hasikeran eta bertan, bere moduan irakasle diran beste espainiar batzuk egingo dau harremana, baina laster kantsauko da uri horretaz eta Mimoun izeneko herri batera joango da biziten Francisco madrildarragaz. Han, bertako jentegaz erlazio nauko da eta Maroko ilun baten mur-

gilduko da. Maroko exotikotik oso urrun dauan herrialde bat ezetuko dogu Chirbesen liburu honetan. Alkohola, sexua eta haxixa bidai lagun. Amildegia hur. Gauaren iluntasuna eguzkia baino presenteago. Bildurra eta paranoia.

Ez noa askoz gehiago kontetan, izan be ehun orri pasatxo daukan liburu honetako istorioa hori da, baina kontuz... Chirbesen poesiak ez dauka limiterik. Beti harritu nau idazle batzuk zelatan esan leikien hainbeste hain orri gitxitan, Irène Némirovsky egin eban moduen *Le Bal* eleberri laburrean (hor beste gomendio bat). Esaldiz esaldi poesia. Hobeto esanda, berbak dotore-dotore jantzita ageri dira obra honetan

eta irakurlea *époustoufflé*, aho zabalik. A bai... frantsesa be ugari hain orri gitxitan, gogora arazoteko behin Frantziaren menpe egon zala herrialdea. Ez dau ezer airean ixten idazleak. Zoaz ba irakurle liburu altxor hau topetan hurreneko liburutegi edo liburutendara eta gozatu irakurten.

**Nerea Goioaga**



**Rafael Chirbes**

**Mimoun**

**Anagrama argitaletxea, 1988**

**156 orrialde**

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

### Zezeilaren 28tik martiaren 6ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

### 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

### Martiaren 7tik 13ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

### 22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

### Martiaren 14tik 20ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

### 22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 600 74 63

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 01 85

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Arratiako Udalen

**Mankomunitatea** 94 631 17 17 /  
*mankomunitatea.arratia@bizkaia.org*

### Gorbeialde Landa

**Garapenerako Alkartea**

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79

**IKE** 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

**Euskotren** 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

**Areatzako Notarriotza** 94 673 92 26

### Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@errota.eus*

### Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

### Bizkaibus 94 612 55 55

**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era orduro.

### 3911 Linea. Bilbo-Galdakoa

**Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduro.

### 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

**Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**

**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

### 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

### 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00;

11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\*Basauriraino bakarrik.

**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20.

\*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

**Ugaotik Igorre.** Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arrigorriagatik Zeberiora.** Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketean:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeberioak BEGITU behar dau alako

2021 urtea, pandemia dala-ta, sano urte latza izan da zeberioztar askorentzat, baita euskerazko hedabideentzat be. Izan be, Zeberioako Udal Gobernuak, EAJ-PNVren esku dagoanak, herrian banatzen diran euskerazko aldizkari biei, BEGITURI eta Geuriari hain zuzen be, dirulaguntzea ezabatzea ebatzi eban. Ebatzi latza diru iturria moztea hainbeste urtez euskera eta euskerazko hedabideen alde lan egiten dabilanei. Zeberioako EH Bilduren Udal Taldeak gogor gaitzetsi eban Udal Gobernuaren jarrera, nahiz eta zenbaitek, pandemiaren atxikiapen, holango bidebakokeriak egiteko argudioak topau daikien.

2022an Zeberioako Udalak 105.000 euro gehiago jasoko dau Udalkutxatik eta %9,4 inguru igon da aurtengo udal aurrekontua. Horrek guztiak pentsau arazo egiten euskun BEGITU eta Geuria aldizkariarentzako dirulaguntzak be berreskuratuko zirala

eta, gure harridurarako, aurtengo aurrekontuetan Geuria aldizkariak dirulaguntzea berreskuratuko dau, baina BEGITU aldizkariak ez. Zeberioako EH Bilduren Udal Taldeak berehala eskatu eban bidebakokeria horri bueltea emon eta aldizkari bientzako dirulaguntzak berreskuratzeko. Alperrik baina.

Ez dakigu ebatzi horren errazoa zein izan daitekean baina sano larrizat jotzen dogu, izan be, euskeraren egoerea Zeberion, tamalez, sano eskasa da eta sano estimauak dira euskeraren erabilera sustatzeko egiten diran ekimen guztiak. Euskerazko komunikabideak funtsezkoak dira herri txikien sozializazio prozesuan, hartu-emonak egiteko beste modu bat eskaintzen deuskue, ume, gazte zein helduoi eta, horren aurrean, Zeberioako Udal Gobernuak itsu azaltzen da, ardurabako, BEGITU aldizkaria hamabostero postontzian sartuta, baina atzean dagoan lana eta ahalegina aitortu barik.

**ZEBERIOKO EH BILDUREN UDAL TALDEA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Aginiaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Aner eta Leire paseoan dabiz. Leire Manu berreskuratuteko esperantzeagaz jabilko Anerri, eta Aner, dakianagaitik, disimuletan ahaleginduko da; beste kontuetara jota, udeko planak komentauko dabez. (II)

Aner: Txotxolote hao beragaz, Leire. Eta esan heuntzanan zozer? Leire: Zoratute hao, ala?

Aner: Holan paretan bahaz, ez donazat heure kontueri buruz galdera gehao eingo.

Leire: Barkau ba, gixona. Eta? Hik ze plan dekok ude parterako?

Aner: Bueno, gureko ñeukena lbizara joan, ikusiko june.

Leire: Ude guztireko?

Aner: Ez, agorriren. Tabernari edo ibili gure jonat, egonaldie ordainduteko.

Leire: Ona, hi! Ederra plana!

Aner: Bueno, hango soldateagaz ez litikona nehikoa izingo gastu guztiek ordainduteko, baia bajekonat zozer aurreratute... moldatuko nona.

Leire: Inbidie emoten dostek! Gusture eingo ñeukek udea han, lbizan!

Aner: Benetan?

Leire: Bai horixe!

Aner: Etorri hai, nigez; beharra bajaona, heuri be ez deune askorik ordainduko, baia alokairue erdibana einde edo... konponduko gintokozana.

Leire: Ez dona ideie txarra. Hemen ez jekoat arrakasta handirik te...

Aner: Elegante ibiliko gozana. Pentseiñe ondo eta esango dostena zozer!

Leire: Itzel! Eskerrik asko, Aner!

## ERETXIA

### Elebitasunaren inguruko hausnarketea

**E**uskal lurren ama hizkuntza eta gure arbasoen ondarea da euskera. Bihotzean daroagu eta ezpainetan darabilgu. Gure berezko zelakotasuna da eta gure eguneroko bizimoduan islatzen da. Munduko beste hizkuntza askogaz alderatu ezker, txiker ikusten gaitue. Ha-ta guzti be, zelan neurtzen da txikitasuna? Berez txikerra, ohiko tamainua, neurria edo garrantziara iristen ez dana da. Euskal Herrian, ordea, azken hamarkadetan egin dan itzelezko lanketa txikia ez ezik egundukoa izan da; besteak beste, euskal hizkuntzaren estandarizazioa, euskal hezkuntza sistemearen ezarpena, irakasleen eta beste hainbat profesionalen euskal formakuntzea, euskal kurrikularen garapena, gizarte-arentzako zerbitzu elebidunen hedapena, eta abar. Gaur egun bizi dogun Euskal Herria, hamarkadaz hamarkada berreregiratuko milaka personoren konpromiso eta de-dikazioaren frutua da. Erronka handiak daukaguz gairidituko, baina munduaren betaurrekoetatik begiratzen gaituenean, euskal hezkuntza sistemea erreferente global bat dala esaten da, batez be beste hizkuntza minorizatu eta indigenentzat.

Illinoiseko Unibersidadean doktoretzea hasi nebanetik, Arratiako ume eta gazteen hizkuntzen garapena aztertzen ibili naz, besteak beste. Urte guzti honeek eta gero, tesiko ondorioak alkarbanandu gurako neukez Arratiako irakurlegoagaz danok hausnarketa sakon bat egin daigun. Ume elebidunak (euskera-gaztelania) eta ume elebakarrak (gaztelania) konparau dodaz urteetan zehar. Arratiako umeak elebidunak dira: euskera eta gaztelania dakiez eta normalean hizkuntza bietako bat (askoz edo apur bat) hobeto menperatzen dabe. Euskal Herriko beste zonalde erdaldu batenko ume elebakarrak be aztertu



### EIDER ETXEBARRIA ZULUAGA

Northwestern Universityko irakaslea

dodaz: ume honeek gaztelania menperatzen dabe eta euskera oso gitxi ulertu eta erabilten dabe. Holango ikerketak oso garrantzitsuak dira eleaniztasuna eta gaitasun kognitiboak hobeto ezetuteko eta, aldi berean, mitoak desmitifiketako.

Nire tesiaren ekarpena labur laburbilduta hau da: euskal hezkuntza sistemeak Arratia lango bailara euskaldun baten elebitasuna loratzeko eta gure umeek eleaniztasuna estimatzeko ingurugiro parebakoa sortu dau. Eskolea euskeraz egitea funtsezkoa da, baina ez da nahikoa. Zergaitik ez da eskolea nahikoa? Bada, euskera lango hizkuntza minoritarioek hainbat erronka dakarrelako. Linguistika eta kognizazioaren ikuspuntutik, euskera moduko hizkuntza minoritarioen ikaskuntza oso ezegonkorra, nekeza eta konplejua izan daiteke errazoi askogaitik. Euskal lurretako hainbat zonaldeetan, euskereak estatus ofiziala dauka, gobernuaren zein gizartearen babesa dauka, baina ez dau nagusitasunik, gaztelania (edo frantsesa Iparraldean) oindino gehiengoaren lehen aukerea dalako. Salbuespenak salbuespen, Euskal Herrian estaduaren

hizkuntza hegemonikoak (gaztelania edo frantsesa) ia-ia edozertarako balio dau eta askorentzat praktikotasun eta ideologia kontu bat da. Zergaitik ikasi behar dabe nire seme-alabek euskera(z)? Askoren kezka da euskereak gaztelaniari "eskola orduak kentzean badeutsaz", gaztelania ez dala behar dan moduan garatuko.

Tesi honetan ondorio garbi bi ateratu doguz. Lehenengoa, ume elebidunen gaztelania ez da ahultzen edo atzeratzen euskeraz ikasten dabelako. Bigarrena, ume elebidunen euskera eta gaztelania aldi berean eta oso bardintsu garatu daitezkez beti be kalidadezko euskera sarri entzuten eta erabilten badabe. Orduan, zergaitik ez deusagu betiko galdereari bueltea emoten: zergaitik ez dabe nire seme-alabek euskera(z) ikasiko? Euren gaztelaniak sendo jarraituko dau euskera sendotzen daben heinean. Kultur eta hizkuntz aniztasuna estimauko ditue. Hainbat gaitasun kognitibo eta erraztasun garatuko ditue. Kontestu sozial desbar-dinetan, gura daben hizkuntza erabilteko aukerea izango dabe. Aukerak ugariak dira eta desabantaila bakoak. Gaztelania ez da inoz galduko Euskal Herrian, baina euskera, testigua firme pasetan ez badogu, —eta hau tristuraz idazten dot— seguruenik bai.

Txikitasunetik handitasunerako bidea zolatu bako bidea da askorentzat. Hizkuntza minoritarioena gainera, erronka infinituz oztapatutako bide horretarako bat da; esfortzu gogorragoa eskatzen dauanetako. Imajinau egizue: aste birik behin, hizkuntza bat galtzean da munduan. Hizkuntzak bizirik mantendutea herritarren ardura da. Batzuentzat erantzukizuna dana beste batzuentzat oparia da. Atzerrian bizi eta gero, argiagotzeko zein berezia dan euskera eta zein urriak diran Arratia lango bazterrak, baita Euskal Herrian bertan be. Ikerketak bat datoz eta mezua argi eta garbia da: euskera benetan jagon gura badogu, bihotzean hurrago eroan behar dogu eta ezpainetan sarriago erabili.

# NETFLIX

## EUSKARAZ

[WWW.PANTAILAREUSKARAZ.EUS](http://WWW.PANTAILAREUSKARAZ.EUS)

EUSKARAZKO  
IKUS-ENTZUNEZKOEN  
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

## LUMATUTEN



## IDOIA EIZMENDI

## Bardintasun politikak ezbaian (I)

**V**ox alderdiaren parlamentariak, zezeilean, legez besteko lau proposamen aurkeztu ditu EAEko Legebiltzarreko osoko bilkuran eztabaidatzeko. Bertan, lau instituzio deuseztea eskatzen jako Jaurilaritzeari, horreen artean, Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokia eta Emakunde.

Indarkeria matxistaren Behatokiaren desagertzea eskatu dau diskriminazioa leporatuz, andren eskubideak "gainerako gizarte-taldeen eskubideen gainean" jarri diralako. Egia esan, ezin da besterik espero indarkeria matxistea existiduten ez dala dinoan alderdi baten partetik.

Emakunde erakundeari jagokonez, alferrikako gastutzat jo dau Vox-ek, Bardintasun Ministerioak badaukalako Emakunde Institutu espainiarra. Ultraeskoitarrantzat austeridade printzipioa sagradua ei da,

segun eta noz.

Legebiltzarrean erakunde horreen jarraipena bera eztabaidagai izatea kezkarria dala uste dot, nahiz eta, ziurrenik, beste alderdiek ez daberen eztabaidan parte hartuko.

2020an Jaurilaritzek berak harri bat ipini eban bardintasun-politiken bidean Emakunde Lehendakaritzatik atera eta Justizia eta Gizarte politiketako sailera eroan ebanean. Mobimentu feministeak atzerapausu handitzat jo eban aldaketea, eta aho batez salatu eban Lehendakaritzari lotutako erakunde autonomo izatetik, bigarren mailako erakunde izatera pasau izana, gainera, politika sozialei lotua.

2010ean, PSOEK bertan behera itxi eban lehenago sortu eban Bardintasun Ministerioa. Estatu Idazkaritza bategaz ordezkatu eban eta, ez Presidentzia barruan, Osasun eta Politika Sozialen Ministerioan baino. Urte berean, PP-k Castilla la Mancha eta Murciako Emakunde Institutuak desagertu arazo ebazan "aurrezteko beharrragaitik, austeroagoak izateko".

Holango barriek mezu argi bi bidaltzen deuskuez, bata, krisi garaian bardintasunerako erakundeak ez dirala ezinbestekoak. Eta bestea, bardintasunari lotutako politikak, mantentzekotan, gizarte zerbitzuen eremura mugatu behar dirala, androk babesa behar dauan kolektiboa izango bagina lez, eta ez, biztanleen %50a.

## ZERTZEAN



## RAFA UGALDE

## Sasoi galdua

**N**ire sasoiak ez diren neska-mutikoen betetzen dituzte egungo espazioak. Ezagun ditut espazioak, ezezagun aurpegiak, ahotsak, keinua eta kerak.

Espazio bereko beste sasoi batzuetako ahotsek agurtzen naute, ordea, beste begi batzuk ditut begira, bestelako keinu eta gorpuzkerak jolasten dira nirekin. Horrelakoetan ohartzen naiz hemengoa naizen arren, ez naizela hemengoa; desio nituen gorputzak gaur ez direla desiragarri, besarkatu ninduten besoek gehiegizko gestikulazioaren espazioa betetzen dutela, bizimodua eratzeko eraiki duten fikzioan; ikusten nindutenean irribarrea ezin galarazi izaten zuten ahoak zurrundu egin direla, eta mingain desiragarriaren eskaintza agerian uzteko ezpainak pitin bat zabalitzen zituzten haiek besarkada bako gestikulazioari laguntzeko berba hutsalen iturri bilakatu dira, musurako gaitasuna erabat galduta. Sasoi haiekin batera joan ziren espazio horietako algarak, irrikak, pasioak eta kitzikak, eta ahozkatu barik geratu ziren samurtasunaren adierazle guztiak.

Tarte hau zeuretzako be zabalik dago, sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**L**otseagaz ez da jaten, esaten eben zaharrek. Baina jakituria hori ez da bakarrik personena.

Igorreko Donibane taberna inguruan badago txantxangorri bat, ezelango lotsa barik, han bazkaltzen daberen mahaian jarri eta plateretik jaten dauana. Ondo janda amaituten dau eguna txoriak eta ez beste batzuek lez, gose. Behar dauana jan eta bestea itxi egiten dau, pilaketarik egin barik.

Ausartak dira txoriak. Fusil baten kainoian be ikusi doguz.

Txori izenak dirudie Putinek eta Bidenek. Euren espiritua barriz, oiloarena litzateke, asko jota.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17 Arkoitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06  
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

**agoa** Ortodontzia  
Inplanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonatologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bilakaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejua 20/21a 401  
R.P.S. 21/06

IGORRE

## Auzoetarako bideak konponduko dira aurten

Zezeilaren 14an onartu ziran Igorren 2022ko Udal kontuak, EH Bilduren aldeko boto eta EAJ-PNVren kontrakoak. Aurten Udalak 4.914,655 euro kudeatuko ditu.

### Erredakzioa

Diru partidarik garrantzitsuenetakoak Gezalako oinezbiderako eta auzoetara doazen bideak konpondutako dira. Guztira, 280.000 euro dagoz horretarako eta herritarren "lehenetsunak eta egindako ekarpenak" hartu dira kontuan aurrekontuetako diru partida horreek ipinteko orduan, Illart Gumuzio Igorreko alkatearen arabera.

Beste diru partida handi bat Gaztegunen proiektuaren erredakzioarako da. Lurrak erosi eta eukalptoari aurre egiteko, beste 13.000 euro dagoz. Kultureari zuzendutakoa eta alkarteentzako dirulaguntzak barriz, mantentidu egin dira.

Gumuziok BEGITURI adierazotakoaren arabera, aurrekontuan isladatzen ez diran baina egingo diran beste inbersino batzuk be badagoz; eskolako patioaren hiru garren eta laugarren faseak, esate baterako. Horretarako, aurreko ur-

tean gordetako dirua erabiliko da. Beste erakunde eta eragileen oneritxiak behar dabezan proiektuak be badagoz; tartean, Industrialdean egin beharreko lanak edo Garakoiko uholde arriskuari aurre egiteko egin beharrekoak.

### EAJ-PNV kontra

EAJ-PNVk ezezko botoa emon eban, taldearen ustez, aurrekontuok kontinuitate diralako, besteak beste. Aurreko urteetako kudeaketea be kritikau eben jeltzaleek, hainbat diru partida eta baliabide erabili barik geratu diralako, eta aurten be hori gertatuko dala uste dabelako. Auzoetako lanetan, planifikazio eta erispiderik eza salatu eben. Udal langileen lanpostuen balorazio barri bat be eskatu eban EAJ-PNVk. Aurrekontu honeetan, "dana zabalik, baina konpromiso barik" dagoala adierazo eben.

Euren proposamen gehienak kanpo geratzea be izan zan ezezkoa emoteko beste errazoi bat.



**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zelakoentzari elkagaiak  
esteziazia

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Belagorri* *Belagorri*

-Solentzen zein alokairuan  
Lurrak (irakitea, landak, basoak...)  
Etebiziak (sua, basoak, etxak...)  
Garaioak  
Lokal komertzialak  
Pabiloiak...  
-Balonoiak

-Irakin berriak erakitzeko  
Etebiziak  
Aktibitate-proiektuak

-Garaio diseinua  
-CEE eta IEE-ak  
-Hirigintza aholkularitza  
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Urrutiar Agirre 23, Leioa - Igarte  
Nafarroa 34.021 51 89 - 455 94 21 31  
947 071 11 98 - 94 717 11 98  
webbidea: 475 255 121  
arratia@arratiaimmobiliaria.com

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Kultura jarduera ugariz eta aldarrikapen feministez beteko da martia

Arratiako mobimentu feministek "Antolakuntza feministaz zaintza sistema publikoa borrokatu" leloa aukeratu dau Martiaren 8ko manifestaziorako. Izan be, zaintza sistema publikoa -lehen be nahikoa ez zana eta hobetuteko asko eukana- gainbehera doa; osasun eta hezkuntza publikoen egoera sano larriak, eta zahar etxeetan zaintza ez egokiagaitik pandemian izandako hildakoek eta eskubide urraketek argi itxi daben moduan.

### Erredakzioa

Horrek andren bizi kalidadea eta askatasun murrizketan eragin zuzena dauka eta honeri aurre egin beharra ezinbestekotzat jotzen dau feminismoak. Manifestazioa, martiaren 8an, 19:00etan, Igorreko Kultur Etxetik abiatuko da. Ostean, ekitaldi bat egongo da Lasarte parkean eta bertan, manifestua irakurriko da jai giroan.

Arratiako erakundeek eta mobimentu feministek prestatutako aldari feministea dakarren ekintza bakarra ez da izango manifestazioa. Alkarretaratzeak be egingo dira eta baita, konzientiazio eta sensibilizazioa bilatzen daben kultura ekintzak be. Zezeilaren amaieran hasi zan egitaraua eta marti osoan luzatuko da.

Zezeilaren 24an hasi ziran Martiaren 8aren inguruko jarduerak, Orratzak talde feministak antolatutako *Feminismoa eta euskal identitatea* tailerragaz eta egun bi beranduago, Zeanurin, Virginia Imaz pailazoaren emonaldiagaz. Egundorretan ikusi ezin izan ebene beste aukera bat izango dabe Oihulari Klown-en ikuskizun hau ikusteko Artean egongo da eta Virginia Imazen *Pronoia* ikuskizuna, martiaren 11n 19:00etan Kultur Etxean.

### Borobilean errotondea

Martiaren 8an, konzentrazio eta manifestazioaz gainera, kale eta plazak andren omenez jantziko dira. Holan, Bediako andren omenez, plaka bat eta herriko andren artean egindako bufandea zugatz baten ipiniko ditue egundorretan, 18:30ean. Ondoren taldeko argazkia musikeagaz girotuta eta Martiaren 8aren aldarrikapena.

Diman, Borobilean errotondearen aurkezpena egingo da martiaren 5ean, 12:30ean, plazan hasita. Errotondearen barriztapenerako Udalak idea lehiaketea atera eban eta Borobilean izeneko proiektuak irabazi eban. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Borobilean* kantuan inspirauta, sano proiektu parte hartzailea izan da, eta alkarte askoren artean egin da. Errotondearen aurkezpenean, kalejirea egongo da, agurra jantzea, bertsolariak, Porrotx eta koreografia bat.

### Kultura feministea

Hilaren 6an, Diman, Itziar Zabala eskalataile dimoztarraren gaineko *Amagana* dokumentala ikusteko aukerea egongo da, 18:00etan, eskolako kamarin. Filma, Bilboko Mendi Film Festival-en egon zan. Bihotz Gorosperenak dira, Dimako eskalatailearen esperientziak kontetan dituan dokumentaleko kantuak. Egundorretan bertan, Igorren, *Euskal Emakume Olerkariak* ikuskizun poetiko-musikala egongo da, 19:00etan, Kultur Etxean. Ikuskizunak Angela Figuera eta Amparo Gaston poetak omentzen ditu.

Hurrengo egunean, martiak 7, 13:00etan, Artean, *Geroa morea da* izenpean, jantza modernoko ikasleek eta edadekoek jantza ikuskizuna eskainiko dabe frontoian.

Martiaren 10ean, *Fabricando mujeres* filma egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxean 18:30ean. Paula

Iglesiasen pelikula honetan, *Fábrica de Mujeres* dalakoak hedatzen dituan estereotipo errepikakorren aurrean burrukatzeko bideak bilatzen ditu protagonistek. Horretarako, kolaboratzaile sare handia dauka. Zeanurin be gaia sakon landuko dabe, egundorretan hasi eta beste saio bi eukiko dituan Mazalak antolatutako *Indarkeria sinbolikoa, patriarkatu kamufflatua* ikastaroan. Saioak 18:00etatik 20:00etara izango dira, martiaren 10, 17 eta 24an.

Hilaren 13an, eguerdiko 12:00etan, Artean, Itziar Zabala eskalataileak ikastarotxo emongo deutse 12 urte arteko umei rokodromoan eta 18:00etan, Areatzako komentuan, *Piztu! EmakumeON energia* antzezlan ikusteko aukerea egongo da. Umerez eta modu dibertigarrian, antzezlanak andra zientzialariak ditu hausnarketagai.

Hilaren 15ean, 18:00etan, Tere Maldonadok egundorretan feministaren zereginen barri emongo dau Bediako eskoletan.

### Bigarren hamabostaldian

Hilaren 18an, Arantzazun, kontzertua eskainiko dau La Basu Etxebarriko rap abeslariak Herriko Tabernan. *Remixes* (2013); *Aire es vida* (2015); *Izotz Erregina* (2016) eta *Ni naiz izotz erregina* (2017) diskoak ditu kalean. Aneguriagaz batera, hip-hopean andren aldeko Esquina Femenina proiektuko kidea da.

Hurrengo domekan, hilak 20, barre batzuk egiteko aukerea egongo da Irantzu Varelaren bakarrizketegaz Lemoako Kultur Etxean.

Martiaren atzen bariku-zapatuan, hilaren 25 eta 26an, hain zuzen be, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *¿Cómo estar en grupos y no morir en el intento?* tailerra emongo dau Areatzan Mar Garrotek. Lehenengo saioa, barikukoa, 18:00etatik 20:00etara izango da eta hurrengo egunekoak 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era. Tailer honetan zelan lan egin sarean eta kolektiboan nekatu barik ikasiko dabe partaideek.

Zapatu horretan, Artean, Kafrangak talde feministek antolatuta, bertso-afari feministea egongo da Ustrukue jatetxean. Saioa Alkaiza 2021eko Nafarroako Bertsolari txapelkunak eta Onintza Enbeita, 2018ko Bizkaiko Bertsolari txapelkunak botako ditue bertsoak.



ARRATIA

## Elikadura burujabetzarantzako bidea egiten hasiko da Makatzak taldea

### Erredakzinoa

Elikadura eta konsumoan aldatuta prozesua ipini gura dau martxan Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak. Martiaren 5ean, 11:00etan, Igorreko Lehendakari Agirre kaleko arkupeetan, ekoizleei, jangela eredu aldatutako beharrez dagozan taldeei eta konsumitzaileei deia egiten deute alkartutako, "Arratiako argakia egiteko gai honetan eta danon artean, egingo doguzan proposamenak aurrera egiteko" sare sozialetan azaldutakoaren arabera. Helburua, elikadura buru-

jabetzarantzako pausua emotea eta konsumo kontzientea bilatzea da. Arratian ekoizten dana jakinda, produktu horreez konsumitzaileek konsumo jasangarriagoa egin lekielako.

### Elikadura burujabetza

Elikadura burujabetza La Via Campesina mobimentuak 1996an sortutako terminoa da eta nazioarteko merkatu eragileen menpe dagozan elikagaien aurrean, jentearen elikadura, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sistemak definitzeko eskubidea aldarrikatzen dau.



ARRATIA

## Egungo gizartearen diagnostikoa eta feminismoaren lehentasunak aztertuko ditu Teresa Maldonadok

### Erredakzinoa

Martiaren 15ean, 18:00etan, Teresa Maldonado filosofo feministeak *Egungo feminismoaren zereginak* izeneko berbaldia emongo dau Bediako eskolan. Izena alde aurretik emon behar da Arratiako Udalen Mankomunitatean edo udaletxeetan. Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatutako berbaldia da.

Egoera diagnostikoa eta feminismoaren zereginen artean zeintzuk izan behar daben gaur egun lehentasuna aztertuko dau Maldonadok. "Feminismoaren ikuspuntutik, hainbat puntu hartu behar dira kontuan: mobilizazio feministetan atzen urteetan izandako arrakasta handia, aurreko urteetan aurrekusi ezin zana; eskoi muturrak feminismoaren kontra emoten duan mezu esplizitua; aurrerapen sozialak eta egiteko dagoana, esaterako".

eta diskriminazio eza sustatzeko Zuzendari Nagusia izan zan.

Militantzia feministan ibilbide luzea dauka, 1980ko hamarkadan hasi zan eta Bilboko Mataraskak taldean, Bizkaiko Emakumeen Asanbladan hamarkada bi baino gehiago emon ondoren, FeministAldeko kide da egun.

Teoria feministaren dibulgatzailea be bada Maldonado; hainbat ikastaro emoten ditu unibersidadean zein jabekuntza eskoletan eta 2021ean, *Hablemos claro* liburua kaleratu eban. Bertan, feminismoan egiten dan lengoaiaren erabilera eta erretrorika aztertzen dauz.



### Teresa Maldonado

Teresa Maldonado Barahona Bigarren Hezkuntzako Filosofia eta Etika irakaslea da eta Feministalde talde feministako kidea. Madrilgo Udaleko bardintasuna

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Osasungintza publikoaren aldeko grebek arrakasta izan eben Arratian be

### Erredakzinoa

ELA, LAB, SATSE, CCOO eta UGT sindikatuek deituta, zezeilaren 25ean, Osakidetza lehene arretako langileek greba egin eben; 27an, kalidadezko osasungintza publikoaren aldeko manifestazioak egon ziran Bilbon, Donostian eta Gasteizen, eta zezeilaren 28ko greba deialdiari, Osakidetza osoko langileek erantzun eutsen.

Greba arrakastatsua izan ziran. Zezeilaren 25eko greba, EAE mailan, arrakastatsua izan zan sindikatuetako ordezkarien arabera; euren estimazioetan lehene arretako langileen %70k egin eben eta lan-ixtea. Eusko Jaurlaritzek barriz, %30ek egin ebela esan eban.

Zezeilaren 28koa "greba historikoa" izango zala aurreikusiten eben sindikatuek. BEGITUREN iturrien arabera, Arratian %70-%80ko jarraipena izan eban. Eusko Jaurlaritzak %100eko zerbitzu minimoak ezarri eban pandemiari lotutako zerbitzuetan, Etengabeko Arreta Puntuetan, larrialdietan eta garbiketan.

Herritar asko batu ziran mobilizazioetara kalidadezko osasun arreta eskatzeko eta osasun langileen lan baldintza duinen eskareri babesa emoteko. COVIDa atakia hartuta, hainbat osasun zentro eta larrialdi zerbitzu zarratzen dabiz. LABen arabera "langileak eta erabiltzaileak alkarregaz mobilizetan gabiz osasun sistema publikoa hondatzen dabizalako".

IGORRE

## Kiñu gaztetxeari babesa adierazo deusie ehunka lagunek

Zezeilaren 19ko manifestazioan ehunka lagunek Kiñu Gaztetxe asanbaldakideei babesa adierazo eutseen eta gaztetxea zabalik mantendutako eskatu eben.

### Erredakzinoa

Epaiketea apirilaren 27an izango da. Sabadell banketeak, eraikinaren jaubeak, eraikina hustutzea eskatzen dau.

"Kiñu Gaztetxea defendatu" lemapean batuta, alkartasuna erakutsi gura izan eutseen herritarrek asanbaldakideei. Izan be, Gaztetxeak ekarpena egiten deute Igorreri ez bakarrik gazteen antolaketa eta aisialdirako espazio moduan, baita gainontzeko alkarte eta herritarrei eskaintzen deutez espazio eta kultura jardueren bidez.

Igorreko Udalak be mozino bat onartu eban Kiñuri alkartasuna adierazoteko.

### Urrunetik datorren arazoa

Kiñu Gaztetxea, 2013ko urri bigarrenaren 16an "okupau" eta 2014ko apirilaren 26an, inauguratu zan. Asanbladakoak akordio batera heldu ziran jaubeak, eraikina erabili eta "jagoteko". Holan, aseguru bat kontratu eban asanbaldakideek erantzukizun zibila kubridutako eta kontratua automatikoki barrizten zan, asanbladakoek akordioa bete bitartean.

Baina handik hiru bat urtera, Banco Sabadellen Solvia etxe agentziak enbargau eban Kiñu Gaztetxearen jaube zan enpresa, eta bere aktibo guztiak Banco



Sabadellera pasau ziran. Sabadell banketeke Solvia etxe agentziak, Kiñu Kultur Elkartek Gaztetxe

lez erabilten duan eraikina itxi dagian, kaleratze prozesua abiatu eban 2020an.



ARRATIA, UBIDE

## Arratiako Udalen Mankomunitatearen kontuak %18 igon dira

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) onartu ebazan 2022ko aurrekontuak zezeilaren 23an, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduko kontrakoakaz.

### Erredakzioa

Ubideko Herri Kandidatura ez zan osoko bilkuran egon. Aurten, mankomunitateak 6.356.668,10 euro kudeatuko ditu, igaz baino %18,57 gehiago.

Diru partidarik handiena etxe-ko hondakinak jaso eta tratetako da. Horretarako 1.852.851,38 euro dagoz. Aurreko urtekoa baino askoz handiagoa da, gaikako bilketan inbersinoak egin behar diralako, eta sistema hobetu. Argiteriari jagokonez, 243.954 euro dagoz. Aurreko urteetan lez, eraginkortasun energetiko handiagoko argiak ipinten jarraituko dabe.

Gizartegintzarako diru partidak be garrantzitsuenetakoak dira. Euren artean, aitatu beharrekoa gizarte larrialdietarako da, 236.000 eurokoa. Etxez etxe laguntza zerbitzurako igaz baino 75.000 euro gehiago dagoz (%29,4) eta 300.000 euro tara heldu da. Gizon eta andren aukera bardintasunarako 57.000 euro dagoz. Zerbitzu barri bat be badago eta gizartean baztertze arriskuan dagozan personei lagunduteko kabinete psikologiko bat kontratauko da. Enplegua bultzatzeko 100.000 euro dagoz.

Udalek 813.062 euro ipiniko ditue, igaz baino %20,16 gehiago.

AUMren erakunde autonomoa dan Arratiako egoitzak 2.246.277,65 euroko aurrekontua izango dau aurten. Zahar etxeak 28 urte beteko ditu eta "momentu honetan, erabarritze integraleko proiektu baten dago"



AUMk azaldutakoaren arabera.

### EH Bilduko ezezko botoa

EH Bildu ados agertu arren aurrekontuetan planteetan diran proiektu batzukaz, gizarte zerbitzuak eta batez be gizarte zerbitzuen karterea indartzeagaz, esate baterako, ezezko botoa emon eban ezin daitezkelako igoera "izugarria" planteau, "planifikazio barrik" eta udal guztiek euren aurrekontuak onartuta daukiezanean. "Igoera nabarmen hori planteatzeko bestelako planifikazio eta prozedura bat egin beharko leuke AUMek" dinoe.

Saioa Elejabarrieta EH Bilduko ordezkariaren esanetan, "proposatutako neurri batzuk egokiak izan daitezke baina ez dago ez elango krogogramarik ezta honek egiteko planifikazio zehatzik". Igoera aurrez udalak adostu ez izana be kritikau eban EH Bilduk. "EH Bilduk eskua luzatzen dau 2023ko aurrekontua planifikazio zehatz eta serio batez egiteko, eta aurrekontua lehenago onartzeko" dino Elejabarrietak.

## Bardintasuna lortzeako gizonen inplikazioa gura dau Bediak

### Erredakzioa

Gizon eta andren arteko aukera bardintasunari jagokonean, sensibilizazioa gehiago lantzea, gizonen inplikazioa lortutea eta andren kontrako indarkeriaren prebenzioa hobetutea dira Bediako III. Bardintasun Planaren helburu batzuk. Helburuok igaz egindako diagnostikotik atera ziran eta horreek izan dirala ekin-tza planaren abiapuntu azaldu deutso BEGURI Aitziber Linaza zinegotziak. Udal osoko bilkuran onartu ostean, jente-aurrean aurkeztuko da 2022-2025 indarraldia daukan Bardintasun Plana.

Murgibe aholkularitzak egindako diagnostiko eta plan honetan, bediatarren inplikazioa azpimarratu gura dau zinegotziak. "Oso pozik gagoz, ze galdeketa, galdetegi piloa bete ziran, 200 inguru eta Bedia baten hori asko da" dino Linazak.

Herritarrek eskatutakoa; hau da, sensibilizazioa, gizonen inplikazioa eta indarkeriaren biktimei arreta hobetuteko, diseinatu dira planeko ekintzak lau ardatz hartuta: Gobernu ona, Emakumeen ahalduntzea, Ekonomia eta gizartearen antolakuntza eraldatzea eta Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizimoduak. Horretarako, "preminazkoa da genero-ikuspegia txertatzen daben neurriak hartzea, askotariko diskriminazioak lantzea eta



Aitziber Linaza.

aniztasunaren aldeko apustua egitea III. Plan hau indarrean dagoan bitartean, bardintasuna sustatzeko eta eskubideak baliatzeko bidean aurrera egiteko" irakurri daiteke onartzeko dan Bediako III. Bardintasun Planean.

### COVID-19aren neurriek moteldutakoa suspertzen

Bediako andrak igaz egiteko ziran gauza asko egin barik geratu ziran, pandemia eta pandemiaren kudeaketeagaitik. "COVID-19ak, mundu mailako krisia eragin dau, eta ondorioz aldatu egin dira danean agenda eta lehenetasun politikoa eta sozialak" dinoe Planean.

Bedia ez da salbuespena izan. Izan be, lehenetasun politikoa eta sozialak aldatuta, hasitako prozesu batzuk gelditu edo moteldu egin ziran jentea batzea zailtzen ebezan neurriakaitik; andra talde bat

sortzeako prozesua, tartean. Egin bako ekin-tza eta moteldutako prozesuei aurten ekingo deutseela barriro dino Linazak. Esate baterako, Udalak antolatutako ikastaro baten parte hartutako hainbat andrak, udalari talde bat eratuteko laguntasuna eskatu eutsien, eta ikastaro haretako dinamizatzailea kontratatuko asmoa agertu dau zinegotziak, "barriro apur bat hazia sartu eta bultzatu edo lagunduteko, eurek ze talde klase gura daben egin eta ze ekin-tza mota gura dabezan egin, modu autonomoan ebazteko, dinamizatzailearen laguntzeagaz".

Igaz bertan behera geratu zan eta erreperau gura daben beste jardura bat, herriko andren urtekerak bat da. Gainera, Arratia mailan, Ilogoran Jabekuntza Eskoleagaz ikastaroak antolatuten, eta aktibo izaten jarraituko dabela dino Aitziber Linazak.

DIMA

## Indarkeria matxista kasuei erantzun publiko instituzionala emoteko protokoloa sortuko dau Dimak

### Erredakzioa

Indarkeria matxista kasuren bat gertatzen danean, Udalak, zein erantzun emon adostu eta eztabaidatzeko, erantzun publiko instituzionala emoteko protokoloa egiteko prozesua abiatu dau, Sortzen Consultoriaren laguntza eta herritarren parte hartzeagaz.

Lehenengo saioa zezeilaren 21ean izan zan, herritarrei zuzendutako ordu biko sensibilizazio eta formakuntza saioa, hain zuzen be. Bertan egon ziran herritarrek izena emon dabe prozesuan parte hartzeako. Ondorengo saioetan, ipiniko da prozesua martxan.

Arratiako Udalen Mankomu-

niteteak protokoloa euki arren, Dimako Udalak herri mailako eta herritarren parte hartzeagaz egindako protokoloa ipini gura dau martxan. Dima "aitzindaria izango da Arratian mota honetako lanke-

tea egiten" lurdana Acasuso zinegotziak BEGURI azaldutakoaren arabera. Atzen urteak, indarkeria matxisteari jagokonez, "gertakariz, mobilizazioz eta proposamenez beteta egon dira" dino zinegotziak.



**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Kili~Kili**  
Antzoki eta Kulturatzeko  
Lehendakari Agnere 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
- Ikusmen terapia  
- Ikusmen gibusua  
- Begiko tentsioa  
- Lentillen adaptazioa  
- Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

MARTXOAK 8, ANDREN NAZINOARTEKO EGUNA

## Bardintasunaren aldeko konpromisoa indartzen



Dimako Udala



Martxoak 8  
**GORA 8  
EMAKUMEON  
BORROKA!**



# #GEROAMOREADA

1. Gure geroa MOREA nahi dugu, ez dago zalantzarik.
2. MORE hasi eta hezi nahi ditugu gureak eta mundua.
3. Errespetua, maitasuna eta elkarlana MOREAK dira.
4. MOREA ez da egun bat, morea bizitzan izateko modu bat da.
5. MOREA maitasuna oinarri duen iraultza feminista da.
6. Forma eta izen asko ditu kolore honek eta denak MOREAK dira.

M8-ARTEA



Arteako Udala



Gure irastetxeak

# Gure

irastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Barrero hartuko doguz kaleak!

GORA BURRUKA FEMINISTEA!

# MARTXOAK 8

## GORA EMAKUMEEN BORROKA!

**Ubideko Udala**

# Laburbira

Euskarazko film laburren XIX.zirkuitua - 2022  
Otsailaren 25etik martxoaren 27ra  
[www.topagunea.eus/laburbira](http://www.topagunea.eus/laburbira)

 <b>SERENDIPIA</b> Iban del Campo	 <b>ITSASOAREN MUGIMENDUA</b> Alba Romero eta Rony Lervoz	 <b>LANBROA</b> Paula Iglesias
 <b>FALTA ZAIZUNA</b> Jose Luis Lopez	 <b>HURRENGO GELTOKIA</b> Nala Alzopua Garro	 <b>REWIND</b> Amala San Sebastian
 <b>TURNOKA</b> Aitor Alberdi	 <b>SUBANDILLA</b> Jose Martinez	 <b>ITSASO</b> Sergio Martinez Villar

**TOKIA:**  
Ubideko Ortuzarren

**EGUNA:** Martiak 12      **ORDUA:** 19:00

**ANTOLATZAILEA:**  
Zertu Kultur Elkarte eta Ubideko Udala

Antolatzailea

Babesleak

Laguntzailea

## Martxoak 18

### 19:00

Herriko Tabernan  
"La Basu"ren kontzertua

# MARTXOAK 8

## GORA EMAKUMEEN BORROKA!

Arantzazuko Udala

## KOFRADIAK

# Alzustako San Migel ermitea, ondare materiala eta inmateriale dala aldarrikatuten dabe hainbat adituk

Bere etorkizunagaz kezkatuta Alzustako ermitea eta kofradiak balioan ipinteko, kofradiak eta komunalaren gaineko mahai-inguru bat antolatu eban herritar talde batek Zeanurin igaz. Bertan, Iñaki Uriarte arkitektoak, Angel Larrea historialariak eta Felix Rodrigo historialari eta filosofoak hartu eben parte.



## Erredakzioa

Uriartek ermiteak inguruan espazio hutsa behar dauala eta hurrean ezin dala ezer eregi defendidu eban; Angel Larreak kofradiari lotutako kontzeptuak azaldu eban, historia egin eta kofradiak soziedade zibil moduan sortu behar dirala adierazo eban. Felix Rodrigok barriz, gizartean bizi dogun krisi sistemikoari aurre egiteko, gizarte premodernotara begiratutea eta "arbasoen jakituria" zelan lagundu ahal dauanaren gaineko hausnarketea egitea proposatu eban.

## Iñaki Uriarte

Iñaki Uriartek *Harri eta Herri* (Gabriel Aresti, 1964) gogora ekarriz hasi eban bere berbaldia "baserriko harrizko eta egurrezko hornen artean" egoan eta egoerak, baserrietan, kandelen argitan, protesta egiteko asmoz alkartu behar ziran garaiak, gogorazoten eutsazala esan eban.

Uriarteren arabera, kultura ondarea, materiala zein imate-

riala, herri baten nortasunaren sintoma handienetako bat dala esan eban Xabier Arginzonizek eta Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeek, 1990ekoak eta 2019koak, jaso eben adierazpen hori. Alzustako kofradiaren ondare materiala eta immateriale konserbategiari jagokonean defentsa falta handia dagoala uste eban, nahiz eta kofradiak gizartea antolatuteko modu historikoen eta tradizioen testigu diran. "Zaindu beharreko ondarea da, baina guztiz kontrakoa gertatzen da: ez da ondasun hori kultura ondasun gisa babesten, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 50. artikuluan jasotzen dan moduan". Gainera, Uriartek azpimarratu eban Konstituzino Auzitegiak Balear Uharteetan emondako epai baten arabera, elementu bat kultura ondasun moduan babestu behar dala, nahiz eta katalogata ez egon. Kofradia garrantzi handiko elementua da historikoki gure herrian, eta, arkitektoaren eretxian, Monumentu Moltsoaren adierazpena

**Auzo kofradiak ondare komunalak gobernetan dabezan erakunde administratiboak dira. Bizkaian kofradiak, Gipuzkoan "ermandadeak" eta Araban "kontzejuak" deitzean dira.**

**Auzo kofradiak Goi-Erdi aroan sortu ziran eta Bizkaiko elizateak baino lehenagokoak dira. 1.000 urte daukiez gitxi gorabehera**

eskatu daiteke Alzusta auzune osorako, perimetroan dagoan guztia babestuteko.

Alzustako kofradia eta San Migel ermitea balioan ipinteko, kontuan hartu behar da monumentu edo kultura ondare bateri, kasu honetan San Migel baseleizeari, identitatea emoten deutsana ingurunea dala; hau da, natura, lurra eta isiltasuna ermitearen paisaje dirala. Ermitea ingurutik ikusi daiteke, goratasun baten dagoalako eta ermitearen bakardadea be hartu behar da kontuan, baloretako orduan.

"Iragana memorian idatzita dago, eta etorkizuna desioan dago" esan eban Carlos Fuentes idazleak. Jose Maria Arizmendiarririk be lotu eban memoria eta lekuak. Uriarteren ustez, daukaguna konserbetea da gure betebeharra, Borgesek esandako moduan, "ahantzurak oroimena ezabatze" arriskurik izan ez daigun. Gure esentziak ez gaitzeako iraultza beharrezkotzat jo eban arkitektoak eta politikarierri erronka bota behar jakiela esan eta galdera batzuk planteatu eutsezan. "Badakizue San Migel ermiteak kultur ondasun lez arnasa hartu behar dauala? Hau da, ez dauala alboko eraikuntzarik onartzen, bere esentziari eusteko? Badakizue ermita honek behaketarako eta meditazinarako espazio bat behar dauala, baita orografia errespetetako be? Eta beraz, ingurua eraikuntza barik mantentidu behar dala? Espazio beharra dauka ermiteak, espazio huts bat behar dau bere inguruan, eta besterik ez, espazio librea bera sorkuntza bat dalako, ez da gabezia bat".

## Angel Larrea

Goi Erdi Aroan sortu ziranetik, kofradiak indarra galduz, baina heldu egin dira Aro Garaikidera. Angel Larrea historialariak, kofradien ezaugarriak argitu eban. Auzo kofradiak ondare komunalak gobernetan dabezan erakunde administratiboak dira. Bizkaian kofradiak, Gipuzkoan "ermandadeak" eta Araban "kontzejuak" deitzean dira.

Auzo kofradiak Goi-Erdi aroan sortu ziran eta Bizkaiko elizateak baino lehenagokoak dira. 1.000 urte daukiez gitxi gorabehera.

Kofradien sorrera ulertuteko, Foruak, bake egoerea, baserriak, eta auzo ermitak euki behar dira kontuan. 1452. urtean Foru Zaharra onartu zan eta lehenengo aldiz, gizaki banakakoak babes juridiko osoa eukiko dau. Hidalgoak (kapareak) be agertzen dira.

Hidalgoak agertu eta ordura arteko gerrariak desagertuko dira, jauntxoaren eta bandoen gudak amaitu diralako Bizkaian. Errege Katolikoaren denporan jauntxo asko zigortuko ditue eta bake egoerea aprobetxauko dabe hidalgoek, euren poderea finkatuteko. XV. mendetik XIX. menderarte hidalgoak izango dira fogeren jaubeak.

Lege foralaren eta bakearen babespean, lehenengoko baserriak sortuko dira, honako egitura honengaz: etxea/-soloa(k)-basoa(k).

Auzo ermitak baserrietako biztanleen zerbitzu espiritualak beteteko sortu ziran. Ondareak daukiez: tenplua bera eta etxe bat, sakristinauarentzat izaten zana; beranduago kanpai jole edo fraile edo andrazkoa zan serorea biziten zan etxea. Soloa eta baso komunalak be ermiten ondare ziran. Baso komunalak, kofradi basoak deitzean dira eta Udal basoetatik, bereiztuta dagoz. Basoetatik ateraten zana (gaztainak, orria, karea, ikatza) kofradiako fogeradunentzat zan.

Kofradia bakotxa mugarriz zedarrituta dago eta gaur egun hainbat mugarri ikusi daitezke. Beharrezkoak diran lanak auzolanean egiten dira; hau da, ermitearen mantenimentua eta konponketak, bolalekuaren mantenimentua, basoetako lanak, landareak ipintea eta bidegintzea. Aitagarría da kofradi bakotzak "bide propioak" eukazala; herriko erdigunetik auzoetara joizanak.

Kofradietan hainbat kargu dagoz. Maiordomoak, ermitako santu egunean ermitea garbitu eta apaindu behar dau. Antxina, kandela bat be ipinten zan. Jaia antolatzearen arduraduna be bera da, eta kofradiaren kontu

eta arazo guztien ardura daroa.

Basazainak basoak saldu edo fogeradunen artean bananduten dauz. "Jokoz kanpo geratu da kargu hau, baina Zeanuriko Otzerimendiko kofradian oindino mantendutena da" azaldu eban Larreak. Idazkaria barriz kargu barria da. Otzerimendiko kofradiak dauka kargu hau. Bere eginkizuna, belnaldi batetik bestera, eta denporan zehar, informazioa mantendutea da. Larrearen eretxian, ezinbestekoa da kofradien nondik norakoak eguneratuta eukiteko eta denporearen podesuz inongo "desafekzinorik" gertatu ez daiten, "informazioa galtzeak krisia besterik ez dakar eta". Idazkariaren betebeharrak: liburuak, kontuak, ordenantzak, estatutuak eta fogeradunen zerrendak eguneratuta eukitea da.

Kofradia bakotzak bere araudi eta erreglamentu autonomoa dauka. Fogera erdiak eta laurdenak be badagoz eta fogeradun batzuek fogera bi be badaukiez. Zenbat fogera daukan neurrian, izango da ordezkatur fogeradun bakotxa kofradian. Fogeradunak, jaubeak bakarrik izan daitezke, ez errentadoreak. Aukera bi dagoz fogeraduna izateko: Etxearen jaubea edo banandu diran kofradi basoen jaubea izatea. Banandutako basoak oin fogeradun bakoxtaren eskritoretan agertzen dira.

Larrearen esanetan, Bizkaia industrializetan hasi zanean, langilegoa agertu zan, eta "langilea" izango da baseritarraren gainean jartzen dan figura sozial nabarmena. Baso banaketa ugari egin eta kofradiak krisi handia bizi dabe harrezkerotzik.

Frankismo garaian, kofradi baso gehiago saldu ziran gastuei aurre egiteko. Adibidez, Zeanuriko Plazatik San Justoraino egin behar zan bidea, Otzerimendiko fogeradunek egin eben eta gastuak ordaintzeko Larrea Baserria saldu eben. 1960ko hamarkadan krisia sakonduz joan zan eta kofradiak bertan behera itxita geratu ziran.

2005, 2006 eta 2007an Arratiako, Zeanuriko hainbat kofradia, tekniko, abogadu eta notarioakz berba egiten hasi ziran ehundaka urtetik gorako ondare eta instituzino honek eskrituratzeko asmotan. 2015eko Euskadiko Zuzenbide Zibilaren barne dagoan 15. legea egin zan. 16. artikuluan auzo kofradiak soziedade zibil moduan sortu behar dirala dino, soziedade zibil horreen kideek, fogerak edo ondareak (basoak, etxeak, lonjak) erosi eta saltzeako ahalmena izan dagien eta baita bazkide barriak sartu daitezkan. Horretarako, Eusko Jaurlaritzan Erregistro Bezei bat sortzeako plana martxan dago. Kofradia batzuetako eskriturak eginda dagoz, baina Eusko

Jaurlaritzako Erregistroan sartzea falta da, eta hau, ebatzi politikoa dala esan eban, oindino gauzatu ez dana.

Kofradiei marku legal bat emoteko, eskriturak egitea urtenbide estrategiko bat izan da Larrearen eretxian. Eta hori posible izan da, kofradiak ez diralako bakarrik entidade historikoak, ondare patriomniala eta ekonomikoa daukien erakundeak be badiralako baino.

### Felix Rodrigo

Felix Rodrigo Moraren arabera, kofradien fenomeno aztertzea oso interesgarria da Iberiar peninsulako herrien historia ulertzeko. Hau, iragan hurreko peninsulako gizarteentestuinguruan kokatu behar da eta bere funtsa, sistema asanbleario eta alkarrerilagunduteko hartu-emonetan dago.

Felipe Esquidon ikerlariaren arabera, "komunaltasun espiritua" erabakigarria da, komunala ezin dalako existidu haren kosmobisino barik. "Komunala ezin da egon gizarte hobbesiar baten, danak danen kontra, gerran dagoan gizarte baten. Komunalak, estadirik ez egotea edo estadu ahula eskatzen dau, personen arteko bizikidetz harremanak maximizatzeke".

Kofradia edo ermandade berbeak, neba-arrebez osotutako alkarte esan gura dau. Alkarbizitza, bizitza emozionala eta harremanezko bizitza ahalik eta gehien zabaltzeko alkartzen diran personen moltsua da. Orduan, atzera egiten badogu, erispide ebanjelikoa daukagu hor. Alderdi ekonomikoa komunala zan eta apostoluen egitateetatik sortu zan. Testametu Barrian esaten da apostoluek "dana komunean" eukiela eta.

Felix Rodrigok Alejandro Nietoren ikerketak aitatu ebazan ondoren. X. mendearen aurretik komunaltasunaren gaineko dokumentaziorik ez dagoala dino Nietok. Rodrigoren eretxian hori gertatu zan komunala bateraezina dalako Zuzenbide Erromatarraz. Zuzenbide Erromatararentzat persona talde bat dagoanean, norbaitek agindu behar dau eta gizarte goitik behera egituratzen dau horrek. Hau da, behekoek obedidu eta goikoek aginduko dabe. Egungo Zuzenbide Positibo guztia, Zuzenbide Erromatarrean oinarrituta dago. Beste errazoi bat dokumentaziorik ez egoteke, Goi Erdi Aroan ahozko kultura nagusi izatea be izan daiteke.

Kofradia mota asko dagoz: bizitza erlazionala eta espirituala hobetuteko, gaixoei lagunduteko, alkar zaintzeako... Etxea erre, ganadua galdu, gaixotu edo ezbeharren bat izaten zanerako asistentzia sistema zan kofradia. Beste kofradia mota bat Atxolorra erakunde zan, andren arteko



# Laburbira

Euskarazko film laburren XIX.zirkuitua - 2022  
Otsailaren 25etik martxoaren 27ra  
[www.topagunea.eus/laburbira](http://www.topagunea.eus/laburbira)



SERENDIPIA  
Iban del Campo



ITSASOAREN MUGIMENDUA  
Alba Romero eta Rony Levoz



LANBROA  
Paula Iglesias



FALTA ZAIZUNA  
Jose Luis Lopez



HURRENGO GELTOKIA  
Naia Algorria Gerra



REWIND  
Amalia San Sebastian



TURNOKA  
Aitor Alberdi



SUBANDELLA  
Jose Martinez



ITSASO  
Sergio Martinez Villar

#### TOKIA:

Igorreko Lasarte Aretoa

#### EGUNA:

Martiak 4

#### ORDUA:

20:00

#### ANTOLATZAILEA:

Zertu Kultur Elkarte eta Igorreko Udala



abusetako eskubidea dago. Goi Erdi Aroko Zuzenbideak barriz, zera dino: zerbaiten gaineko zure jaubetza erlatiboa da, eta erispide batzuen arabera erabili behar dozu; erabili, ez abusau.

Ha-ta guzti be horrek ez dau esan gura gizarte komunaletan dana danena zanik. Familiek etxeak, baratzeak eta lur propioak izaten ebezan, ikutu ezinak. Gero kontzejuko lurak egozan, bazkide alkarteak, errotak... Baina muga bat ipinten zan: inor ezin zan aberastu. Gauzek erabilera balioa izan behar eben eta ez aldaketa-balioa. Ezpabere podere ekonomiko batzuk nagusitu eitekezan komunidadearen gainetik, eta hori herri subiranotasunaren printzipioa ukatzea zan. Oin barriz, jaubetzaren kontzentrazioak suntsitutako mundu baten bizi gara filosofoaren ustez, eta Amazon izan daiteke adibidea.

Komunala eta kofradiak blokean arbuatu ziran peninsulan, baita Euskal Herrian be, klerikaltzat jotzen ziralako. "Laikotasun olatu bat egon zan 1960ko hamarkadan gertatu ziran eraldaketa ekonomikoakaz, eta harreman eta lan sistema horreek guztiak desagertu ziran.



itun bat seme-alabak artatzeko, barbarako.

Sistemeak funtzionau, funtzionetan eban, baina Iraultza libera-lagaz hondatu egin zan. Estadua jaubetu zan bere eremutik kanpo egozan ondasunez, eta galarazo edo desegin ebazan alkarte horreek. Desamortizazioak guztiari eragin eutsan, baita soziedade pribadu ziran kofradia askori be. Baina Euskal Herrian mantenidu egin ziran, Felix Rodrigoren ustez, karlismoaren bildur ziralako.

Normalean, santu bat izaten eben kofradiek, eta erlijino funtzinoa azpimarratzen da, eta ez hainbeste asistentzia funtzinoa, edo funtzino zibila. Kofradietan eritrialak egozan, amankomuneko otorduak, jaiak, laguntza

trukeak, tresna edo lanabes partekatuak... Horrek alkarbizitza giroa sortzean eban. "Orduan jenteak baekian harremanek emoten deuskuezala poztasun edo minik handienak. Jakituria hori galdu egin da" esan eban Rodrigok.

Kofradiek, batzarrek eta kontzejuek; hau da, erakunde premoderno guztiak, gatazkak konpontzeko elementuak be baeukiezan. Kereilak aurrez aurre azaltzen ziran eta batzarrak ebazten eban errazoia nok eukan. Epaille profesionalak estadu epailetzat hartzean ziran. Zuzenbide Erromatarrak jaubetza pribadua zibilizazionaren giltzarri moduan ezarriko dau, *Ius Utendi et Abutendi*, hau da, erabilteko eta

Nekazaritza barri bat asmatu zan, nekazaritza kimiko-mekanikoa, eta klerikalismoa, arkaismoa eta karlismoa estigmatizau ziran, euskal historiaren eta kulturearen funtsezko errealidade bat estaliz. Kosmopolitismoaren izenean kanpoko erduei begiratu behar jakien. Guraso eta seme-alaben arteko haustura gertatu zan". Oin, zikloaren amaierara heldu garala uste dau Rodrigok, eta saldu euskuen mundua jausten hasi dala. "Ongizate estadia hondoratzen ari da, personen arteko harre-

manak suntsitzen ditu". Eta maitasun ezak depresinoa sortzean dau. "Oin suizidioa igoten dabil, depresinoek, zoritxarrez, suizidioa dakarrelako".

Rodrigoren esanetan, ongizate estadia Francok ipini eban 1960ko hamarkadan. "1963an ezarri zan haren oinarritzko lege-ria, baina oin azkenetan dago" eta pentsau behar dogula zelan lagundu ahal deuskun arbasoen jakituriak oingo eta etorkizuneko arazoak konpontzen, esan eban filosofoak.

**begitu**  
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

[www.begitu.eus](http://www.begitu.eus)

**begitu** **18** urte  
Arratia  
Ubide  
Zeberio

**BAIETZ  
50 LAGUN  
BARRI EGIN!**

**2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DANKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: **Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?**

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:  
**Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
Aukeratu urteko kuota:  35€  55€  75€

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

[begitu.eus](http://begitu.eus)    

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

**IPINI ZURE IRAGARKIA  
BEGITUN!**

Informazioa: **649 979 115** eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)

LEMOA 946 31 44 06 ZABAL@ALKIZABAL.NET

**ALKIZABAL**  
LEMOA - BASAURI  
www.alkizabal.net

BASAURI 946 51 05 99 BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

 

         

**MENDIA****Etxean da Alex Txikon****Erredakzioa**

Manaslura igoteko aukerarik ez dauka izan eta "triste eta etsita" itzuli da etxera Alex Txikon, munduko zortzigarren mendirik altuena neguan igoteko helburua ezin izan daualako bete. Edurteek eta haize zakarrek ez deusie aukerarik emon Lemoakoari.

Sano negu gogorra izan dala dino Txikonek. "Denpora gehiena Oinarizko Kanpamentua zaintzen emon dogu, denden inguruan kiloka edur kentzean, inoz heldu ez dan eguraldi oneko leihoaren zain. Oindino gehiago, aste batzuk pasau behar izan doguz Sama-

gaunen, Oinarizko Kanpamentura ailegau aurreko atzen herrian. Gogoratzen dodan negurik gogorrenetakoa izan da. Dana paketatu dogu eta gure azarna ahal bezain ondo garbitu dogu. Gure ardurea mendia topau dogun moduan ixtea da, eta holan egin dogu".

Hori izaten dabe neguko espedizinoek, eguraldiaren menpe dagozala. Oin etxean, atsedena hartu eta "ziur aterako diran proiektu" barriei forma emongo deuse Txikonek. "Pena handia da emaitza, baina, beti esaten dogun moduan, garrantzitsuena etxera onik itzultzea da" adierazo eban alpinistek.

**ERRUGBIA****Bigarrenaren kontra irabazi eban Arratiko Zekorrek taldeak****Erredakzioa**

Zezeilaren 20an, domekaz, jokatu zan Arratiko Zekorren eta Zornotzako Urgozo taldearen arteko errugbi partida, Larreako zelaietan. Aurkari gatxa Zornotzako taldea, izan be, sailkapenean bigarrenak dira Urgozo taldekoak. Zekorrek zazpigarren dagoz, baina zornotzarrei aurre egin eta hogeitun puntu lortu ebezan, aurkariet baino bat gehiago.

Partidu garbia jokatu eben talde biek, kaleratzerik bakoa. Arratiarrak indartsu hasi ziran, 20. minututik aurrera, hiru entsegu egin

ebezan bost minututan. Koldo Cuevas, Mohamed El Madani eta Andoni Lucas izan ziran entsegugileak. Gero, Urgozo taldekoek markagailua bardindutea lortu eben. Baina 52. minutuan Jon Gurtubairen entseguagaz ipini ziran zekorrek aurretik. Hamar minutu ostean, Zornotzakoek barriro hartu eben aurrea. Azkenean, 76. minutuan zigor kolpe batez lortu eban Andoni Lucasek arratiarren garaipena.

Datorren partida Uribealde RKE B taldearen kontra jokatu dau Arratiko Zekorrek-ek hilaren 5ean, 16:30ean Igorren.

**FUTBOLA****Arratia B taldeak lidertza galdu dau**

la denporaldi osoa lidertzan emon ostean atzen astegienean galdu eban lehen postua.

**Erredakzioa**

Gizonezkoen Arratia B taldeak bana bardindu eban zezeilaren 26an etxetik kanpo Ezkurdi B taldearen kontra jokatu partidu. Aurreko astegienean osteran 1-3 irabazi eban Berrizen kontra etxetik kanpo jokatu partidu. Datorren partida etxean jokatu dau Ariz A taldearen kontra hilaren 5ean arrastiko 17:45ean. 21 jardunaldiren ostean, ligako zatirik handienean lider izan da Arratia B taldea, baina lidertza galdu dau eta 43 puntugaz hirugarrena da oin sailkapenean bigarrenagaz bardinduta.

Gizonezkoen Arratia A taldeak osteran 1-0 irabazi eutsan sailkapenean bere aurretik egoan Goredola taldeari zezeilaren 26an Igorren jokatu partidu. Aurreko astegienean be irabazi

eban Lekeitio taldearen kontra etxetik kanpo 2-3ko emaitzeagaz. Datorren partida Zaldia A taldearen kontra jokatu dau Arratiak etxetik kanpo hilaren 5ean, 17:00etan. Arratia hirugarren postuan dago 48 puntugaz, 26 jardunaldi jokatu diranean.

Andrazkoen A taldeak zezeilaren 26an jokatu eban Racing B taldearen kontra eta husna bardindu eban. Aurreko astegieneko zapatuan jokatu eban Urbietan Tolosa taldearen kontra eta 2-3 galdu eben arratiarrek. Datorren partida bigarren postuan dagoan Osasuna B taldearen kontra jokatu dau etxean, hilaren 6an eguerdiko 12:30ean. Arratia zortzigarren postuan dago 20 jardunaldiren ostean, 23 puntugaz.

Andrazkoen Arratia B taldeak zezeilaren 27an jokatu eban Ugao taldearen kontra etxetik

kanpo eta 8-5 galdu eban. Aurreko astegienean Berrio-Otxoa A taldearen kontra, hiruna bardindu eban. Datorren jardunaldia etxean jokatu dau Arratia Bk, Ezkurdi taldearen kontra, hilaren 5ean 20:00etan. 20 jardunaldiren ostean Arratia B hamabigarren postuan dago 23 puntugaz.

**Lemoako Harrobi**

Lemoako Harrobik zezeilaren 26an jokatu eban bere atzen partidu Padura B taldearen kontra etxetik kanpo eta 0-1 irabazi eban. Aurreko astegienean etxean jokatu eban Lemoako taldeak eta 4-0 irabazi eban Artibai taldearen kontra. Datorren partida Ugao taldearen kontra jokatu dau hilaren 5ean 16:30ean Arlonagusian. Hogeta bi jardunaldiren ostean, bigarren postuan segiduten dau Lemoako Harrobik, 46 puntugaz.

**AZKOREA****Irati Astondoak, Urrezko Binakako Aizkolarari Txapelketako finala jokatu dau****Erredakzioa**

Zezeilaren 20an lortu eban Urnietan finalerako pasea. Hiru bikote egon ziran lehian eta bi pasau dira finalera. Martiaren 6an, jokatu da finala Azpeitiko Izarritz pelotalekuan. Han, Irati Astondoa eta Laiene Pikabea, Nerea Sorondo eta Nerea Arrutiren kontra neurtuko dira, Urrezko Aizkorea irabazteko lehian.

Finalurrekoan, bigarren egin eben Astondoak eta Pikabeak; sei enborrak 15 minutu eta 38 segundotan ebagi ebezan. Lana amaitu-

ten azkarrenak Nerea Sorondo eta Nerea Arruti izan ziran 13 minutu eta 23 segundoko denporeagaz. Maika Ariztegik eta Claudia Muñozek ez eben lana amaitu.

Finalurrekoan gustura ez bazan ibili be, pozik agertu da zeanuriztarra pasea lortu izanagaz. "Urduri egon nintzan eta ez nintzan ibili gustura, baina pozik finalera heldu garalako eta finalen gehiago emoteko gogoagaz eta suberte apur batez ea finala irabazteko aukerarik daukagun" azaldu deutso Zeanuriko aizkolariek BEGITURI.



## MENDIA

### Gorbeia Suzien 31 kilometroko lasterketarako izen emotea zabalik



#### Erredakzioa

Munduko Kopako finala izango dan Gorbeia Suzien-eko 31 kilometroko lasterketarako izen emotea zabalik dago martiaren 20ra arte. Izena *gorbeiasuzien.eus* webgunean emon behar da. Ondoren, zozketa bidez osotuko da urtekerako parte hartzaileen zerrenda eta baita itxaron zerrenda be. 21 kilometroko lasterketan parte har-

tzeako barriz, aprilaren 4tik aurrera emon behar da izena.

Gorbeia Suzien lasterketa, Zeanuriko plazatik urten eta mendi tontor batzuk zapaldu ostean, barriro plazara bueltetan da. Lasterketa gogorra da, 31 kilometrokoak 2.400 metroko desnibela dauka eta aurten ISF-k, Nazinoarteko Skyrunning Federazioak, Gorbeia Suzien aukeratu dau Munduko Kopako finala hartzeako.

## MENDIA

### Ganzabaleko bazkideen argazkiak ikusgai hilaren 2tik Igorreko Kultur Etxean



#### Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeko bazkideek, taldeagaz zein euren kabuz, mendian egindako eta lehiaketan aurkeztutako argazkiak batzean ditu Igorreko erakusketak. Lehiaketan, 25 egileren 48 argazki hartu eben parte eta 62 bazkidek emondako botoakaz,

13 argazki saritu ebezan. Horreek argazkiok Igorreko Erakusketa Aretoan egongo dira ikusgai aprilaren 1era arte.

Paraje ederrak erakusten dituen argazki ikusgarriak dira; tartean, Joseba Undurragaren *Zerua zabaltzen*, Izaskun Martinen *Itzela* eta Aitor Iparragirrenen *Zerua ukutan*, batzuk aitatutearren.

## MENDIA

### Onditz Iturbek eta Unai Intxaurragak Apuko igoera lasterketea irabazi dabe

Arratiako mendi lasterketariak hiru txapel lortu eta marka barria ezarri eben Zaramillon (Bizkaia) jokaturako Apuko Igoeraren XIV. edizinoan.

#### Erredakzioa

Lasterketea irabazteaz gainera, Onditz Iturbe igorretarrak marka barria ezarri eban, aurreko markeari minutu bat eta 16 segundo kenduta. Unai Intxaurraga Zeanurikoak, txapel bi lortu eban, Beterano mailako edizino honetako irabazlea eta 2021eko Bizkaiko Mendi Lasterketen Ligako irabazlearena, hain zuzen be.

Lasterketa buruan jarri zan Iturbe hasikeratik eta holan jarraitu eban ibilbidearen 23 kilometroetan, 01:53:30 denporan karrera amaitu eta andrazkoen errekor historikoa apurtuz. Aurreko marka Oihana Azkorbebeitiarena zan eta 01:54:46an egoan. Lasterketan, bigarren egin ebanari be, ia 27 minutu atera eutsazan Igorrekoak. "Denpora guztian izan nintzan lasterketa buru eta lehia neure buruagaz izan zan. Eta amaieran, errekorra apurtu neikeala konturatu nintzanean, erlojuaren kontra" azaldu deutso Iturbek BEGITURI.

**Unai Intxaurragak txapel bi**  
Beterano kategorian be, gizo-



nezkoetan, beste arratiar bat igon zan podiumeko mailarik altuenera. Zeanuriko Unai Intxaurraga izan zan garaile, 1:51:31ko denporeagaz. Txapel honetaz gainera, beste bat be jantzi eban zeanuriztarrak, igazko ligako txapela, hain zuzen.

Izan be, Apuko Igoera, Bizkaiko Mendi Lasterketen Ligako lehenengo proba da eta bertan bandutun dira aurreko ligako txapelak. 2021eko ligan 434 puntu lortu eban Intxaurragak, bigarrenak baino 49 puntu gehiago.

## PELOTEA

### EPELen Binakako Txapelketako finalaurrerako sailkatu dira Elezkano II eta Zabaleta

#### Erredakzioa

Burruka gogorra izan da aurtengo EPELen Binakako Txapelketan. Lau bikote egon dira sailkapeneko buruan, alde minimoagaz. Atzanean, Altuna III-Martija eta Elezkano II-Zabaleta izan dira lehenak. Beraz, finalurreko ligaxkara egingo dabe zuzenean saltu eta martiaren 6an jokatu dabe Bilbon. Play off-a jokatu ostean, Laso-Imaz eta Iribarria-Rezustaren artekoa izango da beste partidua. Finalurreko ligaxka hurrengo hiru astegoienean jokatu da.

Elezkano II eta Zabaletak 22-18 irabazi eben sailkapen ligako hamalagarren eta atzen jardunaldian. Holan, euren partea bete eben, irabazitako hamar partidua lortuta. Halanda be,

Altuna III-Martija eta Iribarria-Rezusta bikoteen emaitzen faltan, ez eben jakin finalurrekoetara edo play off-etara joango ziran. Atzanean, lehenengoek baka-rik lortu eben garaipena, beraz sailkapeneko bigarren postuan geratu dira Elezkano Dimakoa eta Zabaleta.

#### Promozino mailan

Oier Etxebarria igorretarrak be eukiko dau Zabalagaz batera finalurrekoa jokatu teko aukerea, play off-a irabazi ezker. Play off partidua martiaren 6an jokatu dabe Bilboko Miribillako Bizkaia frontoian, Zubizarreta III eta Eskirozen kontra, honek izan diralako laugarrenak. Bikote horren kontra neurtu ziran atzen jardunaldian be eta 22-18 irabaztea lortu eben.

## PELOTEA

### Finalurrekoetan amaitu eban Ainhoa Ruiz de Infantek Eusko Label Txapelketea

#### Erredakzioa

Ados Pilotak antolatutako Eusko Label Txapelketaren finalerako ez zan sailkatu Ainhoa Ruiz de Infante Kortazar. Izan be, zezeilaren 19an jokaturako finalurrekoa, Txumulu-xuetako pelotariak eta Oihane Orbegozo Iraetak 22-12 galdu eben lera Agirre Iturriaga eta Uxue Osés Egañaren kontra. Finala, zezeilaren 27an jokatu zan Azkoitiako Gurea pelotalekuan lera Agirre Iturriaga-Uxue Osés Egaña eta Madalen Etxegarai Zelaia-Olatz Ruiz de Larramendi Lopez bikoteen artean eta irabazleak Madalen Etxegarai Zelaia eta Olatz Ruiz de Larramendi izan ziran 22-11 irabazita.

## ANTZEZLANA

## Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo pailazoaren emonaldia egongo da Igorreko Kultur Etxean

## Erredakzioa

abar deskubriduko dabe.

Martiaren 11n, 18:00etan, Kurkuluxetan Kultur Elkarteko pailazoek, *Hondartzan perretxikotan* saioa eskainiko dabe Igorreko Kultur Etxean.

Lan honetan, Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo hondartzara doaz egun pasa, baina Txorroskilok arazotxo bat euki dau merienda-gaz. Hori dala-ta janaria bilatzea ebatziko dabe eta Euskal Herriko nekazaritza, arrantza eta

## Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo

Txintxeta, Klipa eta Txorroskilo Kurkuluxetan Kultur Elkarteko pailazo konpainia barria da, Zirtaka antzerki taldetik sortutakoa. Antzerki taldeak hogeitau urte baino gehiagoko esperientzia izan dau ume eta familientzako antzerkian, eta euren proposamen artistikoetan dagozan musika eta kantuak eurek sortzean ditue.



## ZINEKLUBA

## Vitoria, 3 de marzo pelikulea dakar Igorreko Zineklubak

## Erredakzioa

Gasteizen 1976ko martiaren 3an gertatutakoan oinarritutako pelikulea da *Vitoria 3 de marzo* eta martiaren 3an ikusi ahal izango da Igorreko Kultur Etxean, 20:00etan.

Victor Cabacok zuzendu eban 2018an pelikulea. Gidoia, Hector Amado eta Juan Ibarrondorena da eta aktore lanak, besteak beste, Ruth Diazek eta Jose Manuel Sedak egiten dabe.

## Sinopsia

Gasteizko 1976ko martiaren 3ko gertakizunetan, poliziak bost langile hil ebazan greba luze baten ostean. Begoñak, erdiko klaseko gazte batek, zuzenean biziko ditu "inoz ezer gertatzen ez dan uria" astindu eben gertakari horreek. Gero eta latzagoa dan gatazka baten ze aldega bat egin ebatzi beharko dabe Begoñak eta bere familiak. Atzenean, sarraskiaren ostean, ez dira inoz be bardinak izango.



## LABURBIRA

## Euskerazko 9 film labur ikusgai egongo dira Diman, Igorren eta Ubiden

## Arratiako ibilbideari ekin deitso Laburbirak.

## Erredakzioa

Areatzan ikusi ahal izan ziran lehenengotik aurtengo 9 filmak, zezeilaren 25ean, eta martiko lehenengo hamabostaldi honetan Diman, Igorren eta Ubiden egongo da ikusteko aukerea. Hilaren 4an, 20:00etan Igorreko Lasarte Aretxean, 11n, 19:00etan Dimako eskolako kameran eta 12an, 19:30ean Ubideko Ortuzarren, hurrengo hurrengo.

Honek dira proiektuak diran pelikulak: Iban del Camporen *Serenipia*; Alba Romera eta Rony Devoren *Itsasoaren mugimendua*; Paula Iglesiasen *Lanbroa*; Jose Luis Gomezzen *Falta zaizuna*; Naia Aizpuruaren *Hurrengo geltokia*; Amaia San Sebastianen *Rewind*; Aitor Alberdiren *Turnoka*; Josu Martinezen *Subandilla* eta Sergi Martinezen *Itsaso*.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen dau Laburbira eta zuzendari hasibari eta profesionalizetako bidean dagozan Eus-

kal Herrian sortu barri diran film onenak eskaintzen dira hainbat herrik osotutako zirkuituan.

Arratian Zertu Kultur Elkartek

antolatzen dau Laburbira, Areatza, Igorre eta Ubiden, udalen laguntzeagaz; eta Diman, Abizarie eta Udala dira antolatzaileak.



## MUSIKEA

## Areatzako musika eta garagardaoaren jaialdia maiatzaren 27 eta 28an izango da

## Erredakzioa

Areatza Musik & Brewing Musika eta Kultura Elkartek jakitera emon dau aurtun Areatza Musik and Beer nazinoarteko musika jaialdia maiatzeko atzen aste-goienean egin gura dauala.

Urte bi dira daborduko jaialdia bere ohiko formatuan ez dala egiten, igaz maiatzaren 29an jaia egin eben arren. Los Brazos, The Renegados eta Triple Zero Band izan ziran orduan eskolako aterpean. Aur-

ten "ohiko formatua berreskuratu gura dogu, egoereak ixten badau behintzat" dinoe antolatzaileek.

2019an, egin zan atzen urtean arrakasta handia izan eban jaialdi internazionalak eta aurtun be jentea hurreratutea gura dabe antolatzaileek.

BEGITURI jaialdian izango diran talde biren izenak jakirarazo deutseez, The Electric Alley, Cadizeko taldea izango da 28an eta Laura Cox frantziarra bere taldeagaz aurreko egunean.



## BERTSO

## Umeentzako bertso-antzerkia eskainiko dabe Kotxepin Kultur Etxean



## Erredakzioa

Aissa Intxausti eta Eneko Arrate bertsolariak, bertsoak eta antzerkia buztartzen dituan *Urpekariak* umeentzako ikuskizuna taularatu dabe hilaren 12an, 18:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Bihurrikeria baten bitartez hurreratzen ditu ikuskizunak bost urtetik gorako umeak bertso eta antzerkiri; protagonistei, ugerlekuko ur bazterrean aspertuta dagozanean, bururatuko jakien bihurrikeria da-eta bertsoak botateko atxakia. Holan, protagonistek hondoko tapoia topau, eta ugerlekua hustu gura dabe, eta eskura daukiezan gauzakaz urperatzeko jantzia prestatu eta tapoiaren bila hasiko dira.



## MUSIKEA

# Kontzertua eskainiko dau Areatzan aurten 30 urte beteten dituan Gozategik

Martiaren 5ean, 19:30ean, Gozategi taldeak kontzertua eskainiko dau Areatzako komentuan.

### Erredakzioa

Taldeak 30 urte beteko ditu aurten trikitixea eta pop musikea buztartzen, eta Areatzan joko ditu bere kanturik ezagunenak. Izena alde aurretik emon behar da Areatza Urtaroka webgunean edo 94 673 90 10 telefonoan. Aforoa bete ezker Areatzako 16 urtetik gorakoek eukiko dabe lehentasuna. Korrika kulturalako ekintza da.

Hogeta hamar urteko ibilbidea eginda, Gozategi sano talde ezaguna da eta arrakasta handiko disko eta kontzertuak jo ditu. Gozategi anai-arrebek 1992an

sortu eben taldea, Iñigo Goikoe-txea ezetu eta euren erromeria moldatzen hasitakoan. 1995ean kaleratu eben lehenengo diskoa. Bosgarren diskoaren ostean, 2006an, Ainhua Gozategi taldea itxi eban. 2012an, zazpigarren diskoa atera eben *Gozategi All Stars* izenpean. Disko horretan, diskografia guztiatik hartutako kanta ezagunak batzean dira.

Gozategiren musikea ezaguna da Euskal Herritik kanpo be, Katalunian batez be, baina baita Madrilan, Vigon, Segovian... baita Finlandian eta Argentinan be, han kontzertuak jo ditualako.



## POESIA

# Andra poeten gaineko ikuskizun poetiko-musikala egongo da Igorren

Igorreko Liburutegiak antolatuta, Poetalia taldekoek *Euskal Emakume Olerkariak* ikuskizuna eskainiko dabe martiaren 6an, arrastiko 19:00etan Lasarte Aretoan.

Euskal Herriko andrazko poeten hainbat poema irakurteko, Poetaliakoakaz batera, Igorreko Poesia Hegalariako kide bi egongo dira, Ana Maria Juez eta Irune Elexpe, hain zuzen be.

### Erredakzioa

Ikuskizunak, Angela Figuera poeta bilbotarra eta Amparo Gaston donostiarra, hartzean ditu ardatz, belaunaldi barrietako idazle andrazkoen lanak be erakutsiz.

Euskerazko zein gaztelaniazko poemak izango dira. "Ardatza andrazkoen lana da, urteetan isilduta egon dana" dino Irune Elexpe antolakuntzakoak. Bere esanetan, Figuera eta Gastoneri esker "ateak zabaldu jakiez ondorengo andra sortzaileei".

Poesiaz gainera, musikea be bada ikuskizunaren alde garrantzitsua eta Euskal kantu ezagunak be egongo dira. Amaia Landak joko dau musikea zuzenean. Narratzaile lanak Amaia Oruetak egingo ditu. "Lujo bat da, Poetaliakoak Igorren eukitea" dino Elexpek eta poesia inguruko Euskal Herriko talderik garrantzitsuenetakoa dala eta Euskal Herritik kanpora be eroaten dituela euren ikuskizunak gehitu



Irune Elexpe eta Pablo Cabañas, Poesia Hegalaria taldekoak.

dau. Igorreko Poesia Hegalaria talde honegaz eta batzuetan taldeak hartu-emon handiak ditu rapsodak konpartituen dabez.

## DUNBA

# Lanbide Heziketa Duala

### Xiber Perez Arroita Zulaibarko elektrizidade saileko koordinatzailea

Lan mundura sartzeako prestakuntza nahikoa daukie Lanbide Heziketako ikasleek? Eskolan landutako teoriagaz nahikoa daukie? Lan munduagaz kontakturik euki ete dau titulua atera barri dauan ikasle batek? Lanbide Heziketa amaituten dauan ikasle baten aurrean suertatu ahal diran galderak dira honeek.

Oin dala ez askora arte, Lanbide Heziketara sartzean ziran ikasleek landuten ebezan jakintza ia guztiak teknikoak ziran, espezialidadeko materia teoriko eta praktikoa garatuz. Azken urteetan, oster, ETHAZI eredu erabiliz, jakintza teoriko eta praktikoez gain, ze-

harkako konpetentziak be (autonomia, komunikazioa, talde lana...) landuten dira. Eredu honegaz, bizitza errealean topau leitekezan egoera problematikoei erantzuna zelan emon ikasten dabe. Horretarako eskolako lanek benetako lan munduko egoerak simuletan dabez.

Baina ikasketak garatuten diran bitartean konpetentzia guzti honeek eskuratu, landu eta barnerrateaz gain, enpresan bertan sartzea be beharrezkoa da.

Aurreko hamarkadetan, zikloan barnean Lantokiko prestakuntza deritxan modulu bat bakarrik egoan. Modulu honen bitartez, eskolako gaitasun guztiak eskuratzen dabezenean, hiru hilez lan

mundura doaz, bertan hiru hilez praktikak egiteko.

Urte batzuk geroago, LH Dualagaz, zikloko bigarren mailan, ikasi eta lan egiteko aukerea zabaldu jakien. Ikasleak eskolan jarraituteaz batera enpresan lanean dagoz. Era honetan garapen orokorrako bat osotuteko auke-rea daukie.

Gaur egunean, Europatik jatorrun lanbide hezkuntza oinarri izanda, zikloko hasikeratik enpresa mundura sartzea gura da. Horretarako, aurten, Lanbide Heziketan Dual eredu piloto barri bat ezarriko da. Zikloetako lehenengo mailako ikasleek be enpresetara joatea dauka helburu eredu honek. Azken ebaluaketan

**Fp**  
EUSKADI  
LANBIDE HEZIKETA  
dual

zehir egun batzuk eskolara eta beste batzuk enpresetara joan beharko dira.

Aurtengo Dual barriagaz, aurreko LH Dual eta praktikakaz batera, Lanbide Heziketako ikasleek



zikloa amaituterakoan garapen osoagoa lortzea espero da.





# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK ETXEA SALGAI

70 m<sup>2</sup>ko pisua salgai Diman, beheko solairua. Gas naturala, logela 2, komun 2, egongela-jangela, suetea eta garajea. Altzairuz horniduta dago. 150.000 euro, negoziagarria. Telefona: 652 704 879.

### SALTZEAN DODAZ

Saltzean dodaz altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etomi zaitkezie ikusten. Telefona: 666 135 596.

### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefona: 94 631 60 22.

### LANA

#### INGELES IRAKASLE BILA

Ingelesa dakian persona baten bila nabil, batxilergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emoteko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ikasleentzat

Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefona: 646 447 988.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

#### SUKALDARI BILA

Zaztaparrak-ekoak udaleku itxietarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezkerro idatzi [zaztaparrakudalekuitxiak@gmail.com](mailto:zaztaparrakudalekuitxiak@gmail.com)-era.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Libertad** filmarako.

Karmele Beobide (Zeanuri)  
Iosu Murgia (Artea)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Hondartzan perretxikotan antzezlanerako.**

Igor Torrontegi (Dima)  
Izaskun Soloeta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

umean medu  
**sem**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
SABINO ARANA 36  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

**begitu**

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta bukunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
[zekutejateetxea@hotmail.com](mailto:zekutejateetxea@hotmail.com)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**begitu**  
eus



**MARTX8AK**  
EMAKUMEEN\* NAZIOARTEKO EGUNA

**BATU  
EMAKUMEEN  
BORROKARA!**



Arratiako  
Udalen  
Mankomunitatea  
BARDINTASUN ARLOA



**emakume  
langilearen**  
NAZIOARTEKO EGUNA

2022



IGORREKO  
UDALA